

ICIBILLET

Paroles de chanson

04/05/2026

Burua Hotz Eta Bihotza Bero

Par Des-Kontrol

Album : Aurrera Begira

Gorputz osoa loturik

gela zikin batean

buruaren hegalak

martxan jarri dira

ezinezkoez gelditu

nire ameskeria

begiak zabaltzen doaz

hankak lurrera!

Oroitzapenen bonbardaketari

ez diot ihes egingo

gustura sentitzen banaiz

nostalgiaren menpeko

minutu motz horietan

bizi dugu berriro

egin dugun guztia

eta duguna egiteko

Ta errepede baten

esnatzen naiz gauero

Rock & Rollaren inertziak

darabilen autoan

konpromesu baten

habiadura bizian

ez du atzean usten

zuen itzal handia

Bizimodu azkar baten

lehenengo lekukoa

bihurgune askotan

buruz bera eroria

bide bakarraren

mapa aspaldi ikasia

baina laster galtzen gara

betiko iskinetan

Egan doan konpromesu bat

ontzaren gainera

eginez oihartzuna

burdin guztien artean

elkartasunaren aurka

ez dago armadarik

ezta ere anaitasun hau

hautsiko duenik

Ta errepede baten

esnatzen naiz gauero

Rock & Rollaren inertziak

darabilen autoan

konpromesu baten

habiadura bizian

ez du atzean usten

zuen itzal handia

Orain Burua hotz

ta bihotza bero

biharko eguna dugu

irabazteko

Orain burua hots

ta bihotza bero

biharko eguna dugu

ospatzeko

Orain Burua hotz

ta bihotza bero

biharko eguna dugu

irabazteko

Orain burua hotz

ta bihotza bero

biharko eguna dugu

ospatzeko

Orain Burua hotz

ta bihotza bero

biharko eguna dugu

irabazteko

Orain burua hots

ta bihotza bero

biharko eguna dugu

ospatzeko

Zure ongi etorria dugu

ospatzeko